

0. Proiektuaren deskribapena:

PlanUp mugikorrerako aplikazio bat da, denbora librean zer egin azkar, erraz eta modu pertsonalizatuan jakin nahi dutenentzat pentsatuta. App-ak planak sortzen ditu erabiltzailearen gustuen, kokapenaren eta erabilgarritasunaren arabera, gertuko aisialdirako gomendioak eskainiz eta lagunekin edo baita jende berriarekin ere egiteko jarduerak aurkitzeko aukera emanez.

Gainera, PlanUp-ek erreserba zuzenak egiten ditu aplikaziotik bertatik, egutegi pertsonalizatuarekin, planak partekatzeko aukera eta bozketekin, alerta adimendunekin eta publizitaterik gabeko premium aukerekin. Aldi berean, aplikazioak tokiko establezimenduei ikusgaitasuna irabazten eta bezero berriak erakartzen laguntzen die, erabiltzaileentzat zein tokiko negozioentzat onuragarria den ekosistema sortuz.